

ENPRESA EUSKARAZ HANDITZEN
Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako enpresa txikiei euskaraz lan egiteko laguntza

PRESTAKUNTZA 2019

Lanean idazten diren ohiko mezuak lantzeko ikastaroa

Eguna:

Urtarrilak 30, otsailak 13 eta 27. Asteazkenak.
Ikastaroa berriz egingo da udaberrian: maiatzak 8, 22 eta ekainak 5

Iraupena:

90' (Hasiera ordua: 13:30 / Amaiera ordua: 15:00)

Lekua:

Urolako Kostako Udal Elkarte (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz)

Helburua:

Lanean ohikoak diren mezuak euskaraz idaztea eta horretarako izan ohi diren zalantzak argitzea da ikastaroaren xedea.

Gaiak:

1. Testu-motak ezagutu eta idazteko aholkuak: mezu elektronikoak, sare sozialetan idazteko mezuak nola egituratu, bilera-deialdiak nola egin...
2. Euskaltzaindiaren oinarritzko arauen lanketa.
3. Testu idatzien egituren azterketa: joskera eta estiloa, kalkoak, erdarakadak...
4. Euskaraz idazterakoen lagungarri diren erreminten aurkezpena.

Metodologia:

Azalpen teorikoak ez ezik, ariketa praktikoak ere egingo dira. Taldean zein banaka egingo da lan. Parte-hartzaileen iritzi, behar eta esperientzia ere hartuko dira kontuan ikastaroan.

Euskara Zerbitzua
Urola Kostako Udal Elkarte